



XV. BERAKO MENDI EGUNA – COVID-19 PROTOKOLOA

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak ondorengo protokolo dokumentu hau prestatu du 2022ko Urtarrilaren 15ean antolatuko duen XV. Mendi egunean hartu beharreko neurriei berri emateko. Egunean bertan nola jokatu beharko dugun azaltzen duen dokumentu-protokoloa.

Igarotzen ari garen osasun larrialdi honengatik, aurtengo Mendi Eguna ez da bertze urteetan antolatutakoaren berdina izango, beraz omenaldi hau ahalik hobekien atera dadin ekintza batzuk kentzera behartuak izan gara.

Antolakuntzak ondorego ekintza hauek antolatzea erabaki du; bikoteka Santa Barbara egingo den kronoigoera eta Berako kultur etxean eskeiniko den bideo emanaldia.

Jende pilaketak ekiditeko, kronoigoera baino lehenago egiten zen Santa Barbarako txangoa kentzea erabaki dugu. Hala nola, antolakuntzak bidea ongi markatuta utzi du noberak bere kabuz ikustera hurbildu nahiko balu. Beti ere osasun neurriak errespetatuz (distantzia soziala eta maskara erabiltzea).

Antolakuntzak ez du erantzunkizunik hartuko oinezkoen inguruan.

Ondorengo ekintzak behar den bezela antolatzeko eta jende pilaketak ekiditeko ondorengo protokolo neurriak prestatu ditugu;

1. Izen emateko protokoloa. Korrika zein bideo emanaldirako txartelak SOILIK web orrialde bidez eginen dira.
2. Dortsalak hartzeko protokoloa.
3. Irteera eta helmuga zonaldeko protokoloa.
4. Bideo emanaldirako protokoloa.

1. IZEN EMATEAK

Kronoigoeran izena emateko eta bideo emanaldirako izen emate guztiak **WEB ORRIALDE BIDEZ EGINEN DIRA (www.manttale.com)**. Egunean bertan **ezin izango da izena eman ezta bideo emanaldirako txartela erosi**. Aldez aurretik egin beharko dira kudeaketa guztiak.

Horretarako, izena eman eta txartelak erosteko aukera, **2022-01-08an arratsaldeko 15.00tan irekiko da eta itxiera 2022-01-014 gaueko 21:00tan** izanen da.

Izen ematerakoan, korrikalariak datuak ongi erregistratu baditu, **posta elektronikoa bidez jakinaraziko zaio dortsalak hartzeko ordua eta irteera ordua**. Informazioa hau web orrialdea ere ikusgai egonen da.

Parte hartzaileak, posta elektronikoa azaltzen zaion **ORDUTEGIAN HARTUKO DU DAGOKION DORTSALA**. Irteera ordutik 5 minutu lehenago sartuko dira antolakuntzak prestatutako eremu itxira. Bertara soilik parte hartzaileak sartuko dira finkatutako ordutegian.

2. DORTSALAK HARTZEKO PROTOKOLOA

Izen emandako parte hartzaile guztiak, posta elektronikoa jasoko du **dortsalen zenbakia, dortsalak hartzeko ordua eta irteera orduarekin**. **Informazio hau web orrialdean ziltzilikatuko dugu**.

Dortsalak hartzeko, antolakuntzak prestatu duen eremu itxira sartu beharko da **FINKATUTAKO ORDUTEGIAN (irteera ordutik 5 minutu lehenago)**. Eremu itxira sartzeko, parte hartzaile zein antolakuntzako kideek **MASKARA ERABILTZEA BEHARREZKOIA IZANEN DUTE**. Sartu bezain pronto, eskuak garbitzeko xaboia egonenda.

Antolakuntzak 5 minutuko denbora tarte finkatu du dortsalak hartzetik irteera puntura joateko. Parte hartzaileak eremu itxira sartuko dira finkatutako ordutegian, dortsalak hartu, dortsala behar den bezela jarri eta zuzenean irteera puntura joan dira. (Mapa 3. Puntuan ikusgai)

PARTE HARTZAILEAK ZEIN ANTOLAKUNTZAKO KIDE GUZTIAK, MOMENTU ORO MASKARA BEHAR DEN BEZELA ERAMATEA BEHARTUKO DA.

3. IRTEERA ETA HELMUGA ZONALDEKO PROTOKOLOA

Finkatutako ordutegian, eremu itxira sartu diren parte hartzaileak guztiak, dortsala hartuko dute eta zuzenean irteera puntura joan dira segurtasun neurriak mantenduz (bi metroko distantzia). **MASKARA JARRITA IZAN BEHARRA DUTE UNE ORO KORRIKA HASI ARTE**. Korrika hasten diren unean, maskara kendu ahal izango dute helmugara iritsi arte.


Helmugako marra gurutzatzen duten parte hartzaile guztiak, antolakuntzak prestatutako zakarontzietara dortsalak botako dituzte eta aldi berean eremu itxitik aterako dira zuzenean.

Lasterketaren ordutegia mantendu egingo da. Arratsaldeko 15:30etan lehendabiziko bikotea aterako da. **Minutu bateko** denbora tartearekin aterako dira bikote guztiak. Helmugaratzen den azkeneko bikotea iristean, antolakuntzak amaitutzat emango du lasterketa.

OHARRA: ANTOLAKUNTZAK EZ DU ANOA PUNTURIK JARRIKO SANTA BARBARAN EZTA BUKAERAKO LUNTXA ERE.

IRITSITAKOAN, PARTE HARTZAILE GUZTIAK EREMU ITXIA UTZI BEHARKO DUTE.

NORBERAK BERE JANARI/EDARIERAMATEAZ ARDURATUKO DA. ANTOLAKUNTZAK EZ DU ANOA PUNTURIK EZARRIKO.



EREMU ITXIAREN ZONALDEA. DORTSALAK HARTZEKO EREMUA, IRTEERA ETA HELMUGA ZONALDEA. BERA KO KIROLDEGIA ETA RIKARDO BAROJA ESKOLA PUBLIKOA.

Oharra: Antolakuntzako kideak bertan egongo dira edozein duda argitzeko.

Jende pilaketak ekiditzea izanen da helburuetako bat, horretarako bozgorailuetatik denbora guztian jakinaraziko da segurtasun distantziak errespetatzeko.

4. BIDEO EMANALDIRAKO PROTOKOLOA

Manttale mendi lasterketa taldea, Berako udalarekin batera, bideo emanaldirako protokolo neurri hauek prestatu ditu

Berako kultur etxeak 103 pertsoneko edukiera du. Beraz 103 sarrera aterako dira salgai bideo emanaldira sartu ahal izateko.

SARRERAK MANTTALEREN WEB ORRIALDETIK SOILIK EROSI DAITEKE.
www.manttale.com

Sarrera bakoitzaren prezioa **5€**koa izanen da. Sarrera eskuratzeko ordainketa gauzatuta egon beharra dauka. **Ordaindu gabeko sarrera ez dira onartuko. WEB ORRIALDEAN DENA IKUSGAI EGONEN DA.**

KULTUR ETXEAN SARTU AHALA IZATEKO DENEK MASKARA ERAMATEA BEHARREZKOA IZANEN DA ETA EZINGO DUTE KENDU ERAIKUNTZATI KATERA ARTE. SARTZERA KOAN ESKUAK XABOIAREKIN GARBITZEA ESKATUKO DA.

Sarrera kontrola egingen da kultur etxean. EZ DA DIRURIK ONARTUKO EZTA ERE SARREREN SALMENTARIK EGINGO. SARRERA GUZTIAK WEB ORRIALDEAN BAKARRIK EROSI AHALKODIRA.

MANTTALE MENDI LASTERKETA TALDEAK HARTUTAKO SEGURTASUN NEURRI GUZTIAK ERRESPETATZEA ESKATZEN DIZUE ETA ANTOLAKUNTZAKO KIDEEK GOMENDATZEN DUTEN GUZTIARI KASO EGITEA.

ESKERRIK ASKO

MANTTALE MENDI LASTERKETA TALDEA
AGERRA MENDI TALDEA
BERAKO UDALA
NAFARROAKO GOBERNUA